

**Euskarako egitasmoak
elkarlanean garatzeko
Buruntzaldeko plana
2016**

Andoaingo Udaleko euskarako zerbitzua
Astigarragako Udaleko euskarako zerbitzua
Hernaniko Udaleko euskarako zerbitzua
Lasarte-Oriako Udaleko euskarako zerbitzua
Urnietako Udaleko euskarako zerbitzua
Usurbilgo Udaleko euskarako zerbitzua

2015eko abenduak 10



Aurkibidea

1.- Sarrera	3
2.- Helburuak	3
3.- Programak eta ardurak	4
4.- Aurrekontuak	7
5.- Programen fitxak	8



1. Sarrera

Euskarako egitasmoak elkarlanean garatzeko Buruntzaldeko plan hau, 2002ko martxoaren 14an Andoainen sinatutako hitzarmenean oinarritzen da.

Buruntzaldeko planaren onarpen egutegiari lotuta, urrats hauek aurreikusten dira:

- Abenduak 10: politikari eta teknikarien bilera. Buruntzaldeko behin betiko memoria eta plana proposatu eta eztabaidatzeko.
- Abenduak 15: memoria eta planari ekarpenak eta behin betiko testua osatu
- Abenduak 17: behin betiko memoria eta plana udal guztietan
- Urtarrilak 29: udal guztietan planak onartuta.

2. Helburuak

Programa guztiak Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiak zehazten dituen hiru helburu estrategikoetan bildu ditugu:

2.1.- Euskara ondorengoetaratzea

"Euskara, belaunez belaun eta etenik gabe, ondorengoetaratzea. Euskararen geroratzea, familiaren, eskolaren eta helduen euskalduntze-alfabetatzearen bidez eta hizkuntza bera osatuz, aberastuz eta hobetuz lortzen da, batez ere."

2.2.- Euskararen erabilera: euskararen aldeko auzogintza eta zerbitzugintza

"Erabiliz zorrozten da hizkuntza. Erabiltzen ez bada herdoildu ez ezik kamustu ere egiten baita. Horregatik, zaindu behar dira ondo familiaren eta eskolaren luzapen eta ingurune diren jardunbide guztiak: kirola, aisia, erlijioa, gune euskaldunenak, enpresa-mundua, administrazioa eta abar. Datozen hamar urteotako erronkarik nagusiena, belaunaldi berrietako euskaldunentzat euskara heldu-aroko erabilera-eremu berezi eta garrantzizkoetarako atsegin eta gaztelania bezain baliozko egitean datza, esaterako, enpresa-mundurako, aisiarako, kirolerako eta komunikabideetarako, produktuen kontsumorako, bai eta funtzio sinboliko eta afektiboetarako ere, hala nola, familiako harremanetarako, lagunarterako, gizarteko bizitzarako, kulturarako, eta norberaren burua euskal hiritar jotzeko. Horretarako, euskarazko zerbitzuen "eskaintza" eskolatik harantzago eraman eta beste erabilera-eremu garrantzizkoetara zabaltzea behar da. Euskararen aldeko auzogintza, zerbitzugintza da, hurrengo hamar urteotan, bai herri-aginteei bai euskararen aldeko taldeei egin beharreko ahalegin garrantzitsuena: euskarak bizi-indar osoa edo ohargarria duen bizi-inguru hurbiletan osasun-, hezkuntza-, kirol-, aisia-, eta abarreko zerbitzuak euskaraz edo ele bietan eskaintzea."

2.3.- Euskararen elikadura

"Hizkuntza eroso eta erraz hitz egin eta erabiliko bada, elikatu egin behar da, liburu, irratia, aldizkari, egunkari, telebista eta abarren bidez. Euskara, bigarren hizkuntza gisa, eskolan ikasi duen euskaldun berriari dituen hizkuntza ezagutzak sendotzen, euskal kulturaren aberastasunaz jabetzen eta bere harreman-sare euskalduna zabaltzen lagundu behar zaio."



3. Programak eta ardurak

ONDORENGO ETA- RATZEA			
ESPARRUA	ARDURA	PROGRAMA	HELBURU ZEHATZA
Familia	Hernani	1. Familia bidezko transmisio plana: gurasogaiak sentsibilizatzea	Gurasoen hizkuntza-ohitura eta jarreretan eragitea
		2. Familia bidezko transmisio plana: ikastetxeekin elkarlanean bideratzeko egitasmoa	Gurasoen hizkuntza-ohitura eta jarreretan eragitea.
	Astigarraga/ Hernani	3. Familia bidezko transmisio plana: haur eskoletako gurasoak sentsibilizatzea	Guraso berriak euskararen transmisioaz sentsibilizatzea
Irakaskuntza	Andoain	4. Heziketa Zikloetako ikastereduak hobetzeko planak.	Heziketa Zikloetako hizkuntzazko egoera hobetzea
Euskalduntze - alfabetatzea	Andoain	5. Euskaltegiekiko elkarlana sustatzea	Eskualdeko euskaltegien elkarlana bultzatzea eta zehar-lerro bezala lantzea egitasmo guztietan
ERABILERA			
Udalak	Hernaniko normalizatzaileak	6. Kulturako ikastaroak euskalduntzeko egitasmoa	Kultura departamentuak antolatzen dituen ikastaroetan euskararen erabilera progresiboki areagotzea.
	Lasarte-.Oriako normalizatzailea	7. Kiroldegietako ikastaroak euskalduntzeko egitasmoa	Kiroldegiek antolatzen dituzten ikastaroetan euskararen erabilera progresiboki areagotzea
		8. Administrazio elektronikoa euskalduntzea.	Administrazio elektronikoa euskalduntzea.



Udalak	Andoaingo normalizatzailea	9. Subrogazio kasuetarako irizpideak eta protokoloa	Administrazio kontratuetan talka egiten duten subrogazio klausulak eta hizkuntza irizpideak agertzen direnerako irizpideak eta protokoloa prestatzea.
	Urnietako normalizatzailea	10.- Kultura eta kirol ikastaroetako erabiltzaileentzako galdetegia	Hizkuntzaren erabilerari buruzko herritarren iritzia jakitea
	Hernaniko normalizatzaileak	11.- Etxez etxeko laguntza zerbitzua aztertzea	Etxez etxeko laguntza zerbitzuaren ezaugarriak aztertzea, hizkuntza irizpideak egokiago definitzeko.
	Urnietako normalizatzaileak	12.- Zinegotzi eta ordezkari politikoen prestakuntza.Udal<>ekin	Hizkuntza politika eraginkorrak bideratzeko arduradun politikoak ahalduntzea eta aktibatzea.
	Hernaniko normalizatzaileak	13.-Kontratu administratiboetako hizkuntza baldintzak errebisatzea	Hizkuntza gaitasunak Europako Erreferentzia Markoak egiten duen mailaketara ekarri.
Beste administrazioak	Andoain	14. Errenta-aitorpena	Errenta aitortzea euskaraz egitea
	Urnietako	15. Osasun zentroak .	Osasun zentroetako hizkuntzaren berri izatea.
	Usurbil	16. Bake Epaitegietako hizkuntza egoera	Bake epaitegietako hizkuntza-egoeraren informazioa jaso eta euskaraz aritzeko dauden aukerak gizarteratzea.
Informazio eta komunikazio teknologiak (IKT)	Hernani eta Andoain	17. Buruntzaldeko webgunea	Buruntzaldeko atari digitala, euskararen inguruko egitasmo, informazioa eta berriak jasoko dituen iraunaraztea eta aberastea
	Astigarraga	18. Motxian Eby lehiaketa	DBHko ikasleak IKTetan eta ikastetxetik kanpo euskara erabiltzea.
Enpresa mundua	Lasarte-Oria/Hernani/Andoain	19. Euskara Merkataritzara: auto-eskolak	Gidabaimena euskaraz ateratzea.



		20. Lan-munduan eragitea	Euskararen erabilera normalizatzea Buruntzaldeko lan munduan.
ELIKADURA			
Hedabideak	Usurbil /Hernani	21. Euskarazko produktuen katalogoa	Euskarazko produktuen kontsumoa sustatzea horien berri emanez
Kulturgintza	Urnieta	22. Gu ere bertsotan egitasmoa	Gazteen artean ahozketasuna lantzea bertsolaritzaren bidez
Corpus plangintza	Usurbil	23. Apelliduak abizendu	Abizena eta izena euskaraz jartzeko urratsak eskuorri batean biltzea.
Besterik	Lasarte-Oria	24.-Koordinazio lana	Buruntzaldeko Udalok hitzartutako egitasmoak koordinatzea eta komunikatzea



4.- Aurrekontua

	Programak*	Aurrekontuak
1.	Gurasogaiak sentsibilizatzea	7.000,00
2.	Haur eskoletako gurasoak sentsibilizatzea	4.500,00
3.	Ikastetxeekin elkarlanean bideratzeko egitasmoa	10.000,00
4.	Heziketa Zikloetako ikastereduak hobetzeko plana	12.000,00
5.	Euskaltegiekiko elkarlana sustatzeko programa	2.000,00
6.	Kulturako ikastaroak euskalduntzeko egitasmoa	0,00
7.	Kiroldegietako ikastaroak euskalduntzeko programa	0,00
8.	Administrazio elektronikoa euskalduntzea .	0,00
9.	Subrogazio kasuetarako irizpideak eta protokoloa	0,00
10.	Kultura eta kirol ikastaroetako erabiltzaileentzako galdetegia	0,00
11.	Etxez etxeko laguntza zerbitzua aztertzea	0,00
12.	Zinegotzi eta ordezkari politikoein prestakuntza. Udal<>ekin	0,00
13.	Kontratu administratiboetako hizkuntza baldintzak berrikustea	0,00
14.	Errenta-aitorpena	4.500,00
15.	Osasun zentroak	3.000,00
16.	Bake Epaitegiak	2.000,00
17.	Buruntzaldeko webgunea	12.244,00
18.	Motxian Eby lehiaketa	3.300,00
19.	Euskara Merkataritzara: auto-eskolak	8.662,00
20.	Lan-munduan eragitea	25.659,00
21.	Euskarazko produktuen katalogoa	7.500,00
22.	Gu ere bertsoan	60.000,00
23.	Apelliduak abizendu	2.000,00
24.	Koordinazio lana	0,00
	GUZTIRA	164.365,00

(*) Programa bakoitzean txertatu dugu komunikazioaren gastua.

Oharrak:

- Aurrekontu hauetan ez daude jasota egitasmoak lantzeko eta gauzatzeko udalerri bakoitzeko euskarako teknikariek emango dituzten lanorduak. Horregatik agertzen da programa batzuen gastuen atalean 0,00 €.
- Aurrekontu hauetan eskualde osorako programa bakoitzak duen aurrekontua jasotzen da, aurrez zehazteko modua izan den kasuetan.
- Nolanahi ere, programa bakoitza egin aurretik aurrekontuak doitu egin beharko dira.
- Programaren batetik kanpo geratzen den herriak ez du programa horretan diru-ekarpenik egingo.



- Herri bakoitzaren diru-ekarpena kalkulatzeko bi eredu erabili ditugu:
argitalpenik badago, tiradaren arabera (biztanle-kopuruaren arabera) egin da kalkulua.
argitalpenik ez badago, parte-hartzaileen artean hainbana egin da kalkulua (biztanle kopurua kontuan izan gabe).
- Usurbilen 2006ko martxoaren 6an egindako bileran Buruntzaldeko Planaren esleipenari lotuta, politikariek erabaki hau hartu zuten:
 1. Programa baten esleipena egitea aurreikusten dugunean, urteko **Planean** hala adieraziko dugu.
 2. **Noiz** hartuko den esleipen bidea: programa berriak direnean eta 6.000 euro baino gehiagoko aurrekontua dutenean.
 - 3 Prozedura: esleipen horren ardura programaren ardura duen zinegotziak izango du eta berak hartuko du esleipen-erabakia. Erabakia Teknikarion Txostenean oinarrituko da.”



1.FAMILIA BIDEZKO TRANSMISIO PLANA Jaioberrien gurasoak sentsibilizatzea

Ezaugarri nagusiak	
Izena:	- Jaioberrien gurasoak sentsibilizatzea.
Helburu estrategikoa:	- Euskara ondorengoetaratzea
Esparrua:	- Familia bidezko jarraipena
Helburu zehatza:	- Guraso berriak zorientzea eta sentsibilizatzea
Arduraduna:	- Hernani
Azalpena	
Haur jaioberrien gurasoei, gutunazal baten barruan, hainbat material bidaltzen zaie: gutuna, etxeko hizkuntza zeta hizkuntzaren transmisioaz ohartu eta gogoeta egitera gonbidatzen dituen, eta opari batzuk: haur txikientzako kantuekin osatutako CDa, haur hizkerak ohitzen zerrenda eta autoan itsasteko pegatina. Materiala berritu egingo da 2016an, itxuraz eta edukiz. Bestetik, HAZI HEZI aldizkaria banatuko da material honekin batera.	
Lanen kronograma (komunikazioa ekintzak barne)	
2016 Urtarrila Martxo Azaroa	- Hileroko bidalketa egitea. HAZI HEZI aldizkaria barne - Materiala aztertzea: edukiak bezala itxura eta berritzeko proposamena egin eta adostu. - Material berria inprimatu. -2017rako beharrak aztertu eta CD berria erosi.
Komunikazio ekintzak: ☐ ez ☐ bai	
Pentsaurrekoa: ☐ Erreportajea: ☐ Web orria: ☒ Sareko jolasik?: ☐ Besterik: ☐	
Euskalduntze-alfabetatze ekintzarik aurreikusten al da? ☒ ez ☐ bai, zein?	
Aurrekontua	
Materiala berritzea eta inprimatzea, eta CDa erostea: 7.000 euro	
Egitasmoan parte hartzen duten udalak	
Denak	
Oharrak	



2.- FAMILIA BIDEZKO TRANSMISIO PLANA

Haur eskoletako gurasoak sentsibilizatzea

Ezaugarri nagusiak	
Izena:	- Haur eskoletako gurasoak sentsibilizatzea
Helburu estrategikoa:	- Euskara ondorengoetaratzea
Esparrua:	- Familia bidezko jarraipena
Helburu zehatza:	- Guraso berriak euskararen transmisioaz sentsibilizatzea
Arduraduna:	- Hernani, Astigarraga
Azalpena	
Partzuergoarekin harremana jarraitu eta bere barneko erabilera plana oinarri hartuta elkarlanean zerbait aurrera eraman ote daitekeen aztertu. Harreman horien emaitzaren arabera, egitasmoa herri bakoitzean modu autonomoan garatzea edota jardun partekatu bat (ber)abiaraztea baloratuko dugu.	
Lanen kronograma	
2016	
Urtar./Martxo	• Partzuergoaren erabilera.plana aztertzea, egitasmoren bat parteka daitekeen aztertzea
Apirila ekaina	• Baiezkotan, egitasmoa definitzea
Iraila:	• Eskualdeko (edo udalerriz udalerriko) egitasmoa berrabiatzea.
Komunikazio ekintzak: BAI	
Web orria eta irrati-tarteak (beste udalekin eta Aldundiarekin partekatuta). Irrati tarteen audioak webera igo litezke.	
Euskalduntze-alfabetatze ekintzarik aurreikusten al da? BAI	
Materiala euskaltegietan banatzea Haur eskoletako gurasoei informazioa ematea herrian euskara ikasi eta hobetzeko dauden eskaintzena (Euskaltegiak, Mintzalaguna...)	
Aurrekontua: 4.500 € <i>Irrati tarteak:</i> 2.500 <i>Materiala:</i> 2.000	
Egitasmoan parte hartzen duten udalak: Andoain, Astigarraga, Hernani, Lasarte-Oria, Urnieta, Usurbil	
OHARRAK	
Egitasmoaren garapena (eta aurrekontua) oso baldintzatuta dago egitasmoaren definizioarekin	



3.- FAMILIA BIDEZKO TRANSMISIO PLANA Ikastetxeekin elkarlanean bideratzeko egitasmoa	
Ezaugarri nagusiak	
Izena:	- Ikastetxeekin elkarlanean garatzeko egitasmoa.
Helburu estrategikoa:	- Euskara ondorengoetaratzea.
Esparrua:	- Familia bidezko jarraipena.
Helburu zehatza:	- Gurasoen hizkuntza-ohitura eta jarreretan eragitea.
Arduraduna:	- Hernani
Azalpena	
Hamaikagarren ikasturtez jarri dugu egitasmoa martxan. Eskualdeko ikastetxe guztiei egin zaie bertan parte hartzeko gonbitea. Parte hartzen segitzea erabaki duten ikastetxeek aurkeztu dituzte beren egitasmo proposamenak. Herri batzuetan aparteko langune batzuk antolatu dira gai hau lantzeko eta ez dute programa honetan zuzenean parte hartuko. Nolanahi ere, gaia garrantzitsua iruditzen zaigu eta herri batzuetan eta besteetan egiten ari diren esperientziak trukatzeko eta arrakastatsuak diren esperientziak partekatzeko ere erabili nahi dugu programa aurtan.	
Lanen kronograma (komunikazioa ekintzak barne)	
2016	
Urtarrila	-2015-16rako adostutako egitasmoak gauzatzea.
Maiat/ekaina	- Ikasturtearen memoria egitea eta herrietan izan diren esperientzia desberdinak jasotzea.
Iraila-urria	-2016-17 ikasturterako egitasmoa diseinatzea.
	-2016-17 ikasturterako egitasmoaren berri ematea ikastetxeei.
Azaroa	-Komunikazioa: Erreportajea herri-komunikabideetan eta weborria elikatu.
Komunikazio ekintzak: BAI Erreportajea eta web orria	
Euskalduntze-alfabetatze ekintzarik aurreikusten al da? BAI Ikastetxeetako gurasoei informazioa ematea herrian euskara ikasi eta hobetzeko dauden eskaintzena. Edota ikastetxeetan euskalduntze taldeak sortzea.	
Aurrekontua: 10.000 €	
Egitasmoan parte hartzen duten udalak: Andoain, Astigarraga, Hernani, Lasarte-Oria, Urnieta eta Usurbil	
OHARRAK	
Lasarte-Oria bere aldetik herri mailan ari da egitasmoa lantzen, baina erreportajeen parte hartuko du, baita esperientzien trukean ere.	



4.- HEZIKETA ZIKLOETAKO IKASTEREDUAK HOBETZEKO PLANAK

Ezaugarri nagusiak	
Izena:	Heziketa Zikloetako ikastereduak hobetzeko planak.
Helburu estrategikoa:	Euskara ondorengoetaratzea
Esparrua:	Irakaskuntza
Helburu zehatza:	Heziketa Zikloetako hizkuntza egoera hobetzea
Arduraduna:	Andoain
Azalpena	
Lau lan ardatz landuko dira egitasmo honetan: - Buruntzaldeko lanbide heziketako ikastetxe eta udaletako euskara zerbitzuen arteko elkarlana sustatzea. - Lanbide heziketako zikloetan euskarazko aukerak ezagutzera ematea. - Enpresetan praktikak egitera joaten diren ikasleei euskaraz gara ditzaten laguntzea, EMUNen eta Laneki proiektuei babesa emanez. - Lanekirekin elkarlanean jarraitzea: Heziketa Zikloetako euskarazko materiala prestatzea nahiz bere zabalkundea egitea eta lantokiko prestakuntza euskaraz egiteko gida prestatzea.	
Lanen kronograma (komunikazioa ekintzak barne)	
2016	
Urtean zehar	Oriako Berritzegunean Buruntzaldeko, Oarsoaldeko eta Urola-Kostako lanbide heziketako ikastetxeekin koordinazioa bultzatzea lantokiko prestakuntza euskaraz izan dadin bultzatzeko.
Otsaila	- 2016-17 ikasturterako B eta D ereduak aukera aztertu (Buruntzaldeko ikastetxeak, Ikaslan, Hetel...)
Martxoa	- Eskuorrien informazioa adostu: beste eskualdeetako informazioa txertatu
Apirila	- Lanbide Heziketako zikloak jasotzen dituen eskuorriak banatu, eta, hala erabakiz gero, publizitatea egitea.
Ekaina	- Lantokiko prestakuntza euskaraz egiteko Lanekik prestatutako GIDAREN aurkezpen publikoa.
Azaroa	- Erreportajea
	- Udalek urteko dirulaguntza erabakitzea eta Lanekiri jakinaraztea.
	- 2016-17 ikasturteko matrikulazio datuak jasotzea, eta lanbide heziketako ikastetxeekin elkarbanatzea.
Komunikazio ekintzak: ☐ ez ☒ bai	
Prensaurrekoa: ☐ Erreportajea: ☒ Web orria: ☒ Sareko jolasik?: ☐ Besterik: ☒	
Erreportajea, Prentsa-oharra eta webgunea eta sare sozialak Erreportajearen gaia: lantokiko prestakuntza euskaraz egiteko EMUNek egindako esperientziak eta Lanekik ondutako gida (ekaina?)	
Euskalduntze-alfabetatze ekintzarik aurreikusten al da?	
☒ ez ☐ bai, zein?	
Aurrekontua: 12.000 €	
• Laneki: 7.000 € • Eskuorriak: 2.500 € • Komunikazioa: 2.500 €	
Egitasmoan parte hartzen duten udalak:	
Lanekiri dirulaguntza: Andoain, Astigarraga, Hernani, Urnieta, Usurbil Gainontzeko egitasmoak: udal guztiak	



5.- EUSKALTEGIEKIKO ELKARLANA SUSTATZEA

Ezaugarri nagusiak	
Izena:	Euskaltegiko elkarlana sustatzea
Helburu estrategikoa:	Euskara ondorengoetaratzea
Esparrua:	Euskalduntze-alfabetatzea
Helburu zehatza:	Eskualdeko euskaltegien elkarlana bultzatzea
Arduraduna:	Andoain
Azalpena	
Egitasmoaren helburua eskualdean dauden euskaltegi eta udalen arteko harremana bultzatzea da, proiektuak ezagutzeko eta elkarlan bideak egiteko: - Euskaltegietako ikasle kopuruak eta emaitzak elkarbanatzea. - Behar eta aukera berriak aztertzea - 2016-17 ikasturterako matrikulazio-kanpaina bateratua.	
Lanen kronograma (komunikazioa ekintzak barne)	
2016	
Otsaila	Matrikulazio datuak jaso: mailak, kopuruak, tipologia, dirulaguntzak.
Martxoa	Euskaltegiekin bilera: datuen irakurketa, behar eta aukera berriak aztertzea, 2016-17 ikasturteko matrikulazio kanpaina diseinatu.
Ekaina-uztaila	16/17 ikasturteko matrikulazio kanpaina diseinatu.
Iraila	Matrikulazio kanpaina bateratuari ekitea.
Azaroa	2016-17 ikasturterako datuak biltzea
Komunikazio ekintzak: ☐ ez ☐ bai	
Pentsaurrekoa: ☒ Erreportajea: ☒ Web orria: ☒ Sareko jolasik?: ☐ Besterik: ☐	
Pentsaurrekoa, Pentsa-oharra eta webgunea eta sare sozialak Erreportajea	
Euskalduntze-alfabetatze ekintzarik aurreikusten al da? ☒ ez ☐ bai, zein?	
Aurrekontua: Komunikazio kanpainarako 2.000 euro	
Egitasmoan parte hartzen duten udalak: Buruntzaldeko udal guztiak	
Oharrak	



6. KULTURAKO IKASTAROAK EUSKALDUNTZEKO EGITASMOA

Ezaugarri nagusiak	
Izena:	-Kulturako ikastaroak euskalduntzea
Helburu estrategikoa:	-Euskararen aldeko auzogintza eta zerbitzugintza
Esparrua:	-Administrazioa
Helburu zehatza:	- Kultura departamentuak antolatzen dituen ikastaroetan euskararen erabilera progresiboki areagotzea
Arduraduna:	-Hernani
Azalpena	
Aurreko urteetako metodologia bera erabiliko dugu erabilera datuak jaso eta horiei jarraipena egiteko. 2015/2016 ikasturteari dagozkion datuak ikasturtean zehar bildu eta ekainean partekatu egingo ditugu. Bestalde, kultur etxeetan ikasleen esku jartzen diren kartelak nahiz beste edozein material gure artean partekatuko dugu ikasturtean zehar.	
Lanen kronograma (komunikazioa ekintzak barne)	
2016 Uztaila	2015/2016 ikasturteko datuak bildu eta partekatu.
Komunikazio ekintzak: ☒ ez ☐ bai	
Prentsaurrekoa: ☐ Erreportajea: ☐ Web orria: ☐ Sareko jolasik?: ☐ Besterik: ☐	
Euskalduntze-alfabetatze ekintzarik aurreikusten al da? ☒ ez ☐ bai, zein?	
Aurrekontua: 0,00 euro	
Egitasmoan parte hartzen duten udalak: Andoain, Hernani, Lasarte-Oria eta Urnieta.	
Oharrak	



7. KIROLDEGIETAKO IKASTAROAK EUSKALDUNTZEKO PROGRAMA

Ezaugarri nagusiak	
Izena:	-Kiroldegietako ikastaroak euskalduntzea
Helburu estrategikoa:	- Euskararen aldeko auzogintza eta zerbitzugintza
Esparrua:	- Administrazioa
Helburu zehatza:	- Kiroldegiekin antolatzen dituzten ikastaroetan euskararen erabilera progresiboki areagotzea.
Arduraduna:	- Lasarte-Oria
Azalpena	
Aurreko urteetan erabilitako metodologia bera erabiliko dugu taldeetako helburuen jarraipena egiteko. Horrez gain, herritarrak nahiz monitoreak sentsibilizatzeko asmoz sortzen den materiala aurkeztuko da, gainerako herriek ere erabiltzeko aukera izan dezaten.	
Lanen kronograma (komunikazioa ekintzak barne)	
2016 Ekaina	Bildutako datuak aurkeztu eta baloratu
Komunikazio ekintzak: ☒ ez ☐ bai	
Prentsaurrekoa: ☐ Erreportajea: ☐ Web orria: ☐ Sareko jolasik?: ☐ Besterik: ☐	
Euskalduntze-alfabetatze ekintzarik aurreikusten al da? ☒ ez ☐ bai, zein?	
Aurrekontua: 0,00 €	
Egitasmoan parte hartzen duten udalak: Andoain, Lasarte-Oria eta Urnieta.	
Oharrak	



8. ADMINISTRAZIO ELEKTRONIKOA EUSKALDUNTZEA

Ezaugarri nagusiak	
Izena:	Administrazio elektronikoa euskalduntzea
Helburu estrategikoa:	Euskararen aldeko auzogintza eta zerbitzugintza.
Esparrua:	Administrazioa.
Helburu zehatza:	Administrazio elektronikoa euskalduntzea.
Arduraduna:	-Lasarte-Oria
Azalpena	
Administrazio elektronikoa osatzen duten hiru alderdi nagusietan euskararen erabilera sustatzea: 1- IZFEren "Espedienteak" aplikazioaren erabileran 2- Tramiteetan sortzen diren dokumentuetan (hizkuntza irizpideak) 3- Herritarrentzako zerbitzu telematikoetan	
Lanen kronograma (komunikazio ekintzak barne)	
2016 Otsaila Apirila Ekaina Urria	Bakoitzak bere udaleko egoera aztertu Jarraipena Jarraipena Jarraipena
Komunikazio ekintzak: ☒ ez ☐ bai Pentsaurrekoa: ☐ Erreportajea: ☐ Web orria: ☐ Sareko jolasik?: ☐ Besterik: ☐	
Euskalduntze-alfabetatze ekintzarik aurreikusten al da? ☒ez ☐bai, zein?	
Aurrekontua: 0,00 €	
Egitasmoan parte hartzen duten udalak: Andoain, Hernani, Lasarte-Oria eta Urnieta.	
Oharrak	



9.SUBROGAZIO KASUETARAKO IRIZPIDEEN ETA PROTOKOLOAREN JARRAIPENA

Ezaugarri nagusiak	
Izena:	-Subrogazio kasuetarako irizpideak
Helburu estrategikoa:	-Euskararen aldeko auzogintza eta zerbitzugintza.
Esparrua:	-Administrazioa.
Helburu zehatza:	-Administrazio kontratuetan subrogazio kasuetarako irizpideen eta protokoloaren jarraipena egitea.
Arduraduna:	-Andoain
Azalpena	
Administrazio kontratuak egiterakoan subrogazio eskubidea duten langileen hizkuntza gaitasuna egiaztatzeko irizpideak eta protokoloa bateratzeko 2015. urtean proposatutakoari jarraipena egingo diogu 2016. urtean.	
Lanen kronograma (komunikazioa ekintzak barne)	
2016	
Apirila	Jarraipena
Urria	Jarraipena
Komunikazio ekintzak: ☒ ez ☐ bai Prentsaurrekoa: ☐ Erreportajea: ☐ Web orria: ☐ Sareko jolasik?: ☐ Besterik: ☐	
Euskalduntze-alfabetatze ekintzarik aurreikusten al da? ☒ ez ☐ bai, zein?	
Aurrekontua: 0,00 €	
Egitasmoan parte hartzen duten udalak: Andoain, Hernani, Lasarte-Oria eta Urnieta.	
Oharrak	



10. KULTURA ETA KIROL IKASTAROETAKO ERABILTZAILEENTZAKO GALDETEGIA

Ezaugarri nagusiak	
Izena:	Ikastaroetako erabiltzaileentzako galdetegia
Helburu estrategikoa:	Euskararen aldeko auzogintza eta zerbitzugintza.
Esparrua:	Administrazioa.
Helburu zehatza:	Hizkuntzaren erabilerari buruzko herritarren iritzia jakitea.
Arduraduna:	-Urnieta
Azalpena	
Kultura eta kirol ikastaroetako erabiltzaileei hizkuntzaren erabilerari buruzko iritzia jakiteko inkesta bat prestatu zen 2015ean eta Hernanin inplementatu zen. 2016an galdetegia egokitu egingo dugu eta herri bakoitzak bere esku izango du eta bakoitzak erabakiko du noiz erabili.	
Lanen kronograma (komunikazioa ekintzak barne)	
2016	
Urtarrila	Galdetegia egokitu
Urria	Herri bakoitzak egindakoaren berri besteei eman
Komunikazio ekintzak: ☒ ez ☐ bai	
Prentsaurrekoa: ☐ Erreportajea: ☐ Web orria: ☐ Sareko jolasik?: ☐ Besterik: ☐	
Euskalduntze-alfabetatze ekintzarik aurreikusten al da? ☒ ez ☐ bai, zein?	
Aurrekontua: 0,00 €	
Egitasmoan parte hartzen duten udalak: Andoain, Hernani, Lasarte-Oria eta Urnieta.	
Oharrak	



11. ETXEZ ETXEKO LAGUNTZA ZERBITZUA AZTERTZEA

Ezaugarri nagusiak	
Izena:	- Etxez etxeko laguntza zerbitzua aztertzea
Helburu estrategikoa:	- Euskararen aldeko auzogintza eta zerbitzugintza
Esparrua:	- Administrazioa
Helburu zehatza:	- Etxez etxeko laguntza zerbitzuan hizkuntzaren kudeaketa.
Arduraduna:	- Hernani
Azalpena	
2015. urtean etxez etxeko laguntza zerbitzuaren erabiltzaileek langile euskalduna eskatu duten eta langile euskalduna jarri zaien jasotzeko txantilo bat prestatu dugu. Txantilo hori gizarte langilearen esku jarriko dugu, datu horiek jaso ditzan. Urtean bitan txantilo horretan jasotako datuak eskatuko dizkiogu gizarte langileari. Horrela jakingo dugu zein erabiltzaile kopuruk eskatzen duen etxez etxeko langile euskalduna, zenbati jartzen zaion, eta jartzen ez den kasuetan zein den arrazoia. Emailtzak urtean bitan partekatuko egingo dira.	
Lanen kronograma (komunikazioa ekintzak barne)	
2016	
Maiatza	Emailtzak partekatu
Abendua	Emailtzak partekatu
Komunikazio ekintzak: ☒ ez ☐ bai	
Prentsaurrekoa: ☐ Erreportajea: ☐ Web orria: ☐ Sareko jolasik?: ☐ Besterik: ☐	
Euskalduntze-alfabetatze ekintzarik aurreikusten al da? ☒ ez ☐ bai, zein?	
Aurrekontua: 0,00 €	
Egitasmoan parte hartzen duten udalak: Andoain, Hernani, Lasarte-Oria eta Urnieta.	
Oharrak	



12. UDAL<>EKIN-EN ZINEGOTZI ETA ORDEZKARI POLITIKOENTZAKO PRESTAKUNTZARI JARRAIPENA

Ezaugarri nagusiak	
Izena:	-Udal<>ekin prestakuntzari jarraipena
Helburu estrategikoa:	-Euskararen aldeko auzogintza eta zerbitzugintza.
Esparrua:	-Administrazioa.
Helburu zehatza:	-Gipuzkoako udaletako ordezkari politikoentzako 2015eko azaroan egin den jardunaldiaren jarraipena egitea eta informazioa partekatzea.
Arduraduna:	-Urnieta
Azalpena	
Gipuzkoako Foru Aldundiak jardunaldia antolatu du 2015eko azaroan Gipuzkoako udaletako ordezkari politikoentzako, denen arteko elkarlana bultzatzeko asmoz. Helburua da hizkuntza politika eraginkorrak bideratzeko arduradun politikoak ahalduntzea eta aktibatzea. Jardunaldi horien jarraipena egitea da egitasmo honen helburua: informazioa lortzea eta partekatzea.	
Lanen kronograma (komunikazioa ekintzak barne)	
2016 Urtarrila Apirila Uztaila Urria	Abenduan bakoitzak bere udalean jasotako informazioa partekatu. Jarraipena Jarraipena Jarraipena
Komunikazio ekintzak: ☒ ez ☐ bai Prentsaurrekoa: ☐ Erreportajea: ☐ Web orria: ☐ Sareko jolasik?: ☐ Besterik: ☐	
Euskalduntze-alfabetatze ekintzarik aurreikusten al da? ☒ez ☐bai, zein?	
Aurrekontua: 0,00 €	
Egitasmoan parte hartzen duten udalak: Andoain, Hernani, Lasarte-Oria eta Urnieta.	
Oharrak	



13.-KONTRATU ADMINISTRATIBOETAKO HIZKUNTZA BALDINTZEN TESTUA ERREBISATU ETA ALDUNDIKOAREKIN ALDERATU

Ezaugarri nagusiak	
Izena:	-Kontratu administratiboetarako hizkuntza baldintzak
Helburu estrategikoa:	-Euskararen aldeko auzogintza eta zerbitzugintza.
Esparrua:	-Administrazioa.
Helburu zehatza:	-Testuaren eranskinean jasotako hizkuntza gaitasunak aztertu, beharrezkoa balitz egokitu eta Europako Erreferentzia Markora ekarri.
Arduraduna:	-Hernani
Azalpena	
Kontratu administratiboetako hizkuntza baldintzen eranskinean lanpostu bakoitzaren hizkuntza gaitasuna dator jasota. Duela 10 urte zehaztutako hizkuntza gaitasunak aztertuko ditugu egitasmo honetan, egokitu beharrezkoa izango balitz (betiere lanpostu bakoitzaren egungo funtzioak kontuan izanik), eta Europako Erreferentzia Markoak egiten duen mailaketara ekarri.	
Lanen kronograma (komunikazioa ekintzak barne)	
2016	
Urtarrila	Eranskinean lanpostu bakoitzarentzat zehaztutako hizkuntza gaitasuna egokia den aztertzen hasi, Europako Erreferentzia Markoak maila bakoitzerako egiten duen definizioa kontuan hartuta.
Otsaila	Jarraipena
Maiatza	Jarraipena
Uztaila	Jarraipena
Komunikazio ekintzak: ☒ ez ☐ bai Prentsaurrekoa: ☐ Erreportajea: ☐ Web orria: ☐ Sareko jolasik?: ☐ Besterik: ☐	
Euskalduntze-alfabetatze ekintzarik aurreikusten al da? ☒ ez ☐ bai, zein?	
Aurrekontua: 0,00 €	
Egitasmoan parte hartzen duten udalak: Andoain, Hernani, Lasarte-Oria eta Urnieta.	
Oharrak	



14.- ERRENTA AITORPENA

Ezaugarri nagusiak	
Izena:	Errenta aitorpena
Helburuestrategikoa:	Euskararen erabilera: euskararen aldeko auzogintza-zerbitzugintza.
Esparrua:	Administrazioa
Helburu zehatza:	Errenta aitorpena euskaraz egitea
Arduraduna:	Andoain
Azalpena	
Errenta-aitorpena euskaraz egiteko kanpaina webgune eta sare sozialen bidez bideratuko dugu, baina kartel batzuk ere erabiliko dira herriko toki esanguratsuetan jartzeko. Era berean, udal bakoitzak erabakiko du tokiko hedabideetan ere publizitatea egitea ala ez Errenta aitorpena euskaraz egiteko jarraitu beharreko urratsak azaldu (telematikoa, aurrez aurrekoa, proposamena bidalita...) Aurreko ekitaldietako emaitzen berri emango dugu, baita urteko kanpainak dituen ogasun arloko berrikuntzei buruzko informazioa ere.	
Lanen kronograma (komunikazioa ekintzak barne)	
2016	
Otsaila	Ogasunaren prozedura aztertu, kanpaina berrirako diseinu eta leloa erabaki eta egutegia adostu (publizitate datak, kartelak jartzekoa, etab.)
Martxoa	2014ko kanpainako hizkuntzari buruzko datuak bildu eta horien berri eman
Apirila	2015eko errenta kanpaina abiarazi: kartelak, webgunea, sare sozialak, herri komunikabideak, facebook bidezko lehiaketa...
Komunikazio ekintzak: ☐ ez ☒ bai	
Prentsaurrekoa: ☐ Erreportajea: ☐ Web orria: ☒ Sareko jolasik?: ☐ Besterik: ☐	
Prentsa-oharra, webgunea eta sare sozialak. Aukeran iragarkiak toki hedabideetan.	
Euskalduntze-alfabetatze ekintzarik aurreikusten al da? ☒ ez ☐ bai, zein?	
Aurrekontua: Komunikazio kanpainarako 4.500 euro	
Egitasmoan parte hartzen duten udalak: Buruntzaldeko udal guztiek.	
Oharrak	



15.- OSASUN ZENTROAK

Ezaugarri nagusiak	
Izena:	Osasun Zentroak
Helburu estrategikoa:	Euskararen erabilera: euskararen aldeko auzogintza-zerbitzugintza.
Esparrua:	Administrazioa
Helburu zehatza:	Osasun Zentroetako hizkuntzaren berri izatea
Arduraduna:	Urnieta
Azalpena	
Eskualdeko Osasun etxeetako hizkuntza egoera erreala ezagutu eta horren berri ematea herritarrei. Aldi berean, Osakidetzako euskara teknikariek saiatu elkarlanean hasten haiek atzemandako beharrei hobeto eta elkarlanean erantzuteko.	
Lanen kronograma (komunikazioa ekintzak barne)	
2016	- Osakidetzarekin kontaktuan jarri ezagutzeko zein egiturarekin ari diren orain, eta zein izango litzateke gure solaskidea - Hortik ateratako informazioarekin hasi lanean
Komunikazio ekintzak: ☒ ez ☐ bai	
Prentsaurrekoa: ☐ Erreportajea: ☐ Web orria: ☐ Sareko jolasik?: ☐ Besterik: ☐	
Euskalduntze-alfabetatze ekintzarik aurreikusten al da? ☒ ez ☐ bai, zein?	
Aurrekontua: 3.000,00 €	
Egitasmoan parte hartzen duten udalak: Andoain, Astigarraga, Hernani, Lasarte-Oria, Urnieta, Usurbil	
Oharrak	



16. BAKE EPAITEGIAK

Ezaugarri nagusiak	
Izena:	Bake Epaitegiak
Helburu estrategikoa:	Euskararen erabilera: euskararen aldeko auzogintza etazerbitzugintza
Esparrua:	Administrazioa
Helburu zehatza:	Bake Epaitegietako hizkuntza egoeraren informazioa jasotzea
Arduraduna:	Usurbil
Azalpena	
Buruntzaldeko Bake Epaitegietako langileen euskara mailari buruzko datuak bildu eta Bake Epaitegietan euskaraz egin daitezkeen izapideen zerrenda osatuko da. Beharrezkoa ikusiko balitz, litekeena da argitalpenen bat egitea.	
Lanen kronograma (komunikazioa ekintzak barne)	
2016	
Ekaina	Datuak osatu
Iraila	Txostena prestatu
Komunikazio ekintzak: ☒ ez ☐ bai	
Prensaurrekoa: ☐ Erreportajea: ☐ Web orria: ☐ Sareko jolasik?: ☐ Besterik: ☐	
Euskalduntze-alfabetatze ekintzarik aurreikusten al da? ☒ez ☐bai, zein?	
Aurrekontua: 2000 €	
Egitasmoan parte hartzen duten udalak: Denak	
Oharrak	



17. www.buruntzaldea.eus WEBGUNEAK

Ezaugarri nagusiak	
Izena:	www.buruntzaldea.eus
Helburu estrategikoa:	Euskararen erabilera: euskararen aldeko auzogintza-zerbitzugintza
Esparrua:	Teknologia berriak
Helburu zehatza:	Buruntzaldeko atari digitala, euskararen inguruko egitasmo, informazioa eta berriak jasoko dituen iraunaraztea eta aberastea.
Arduraduna:	Hernani-Andoain
Azalpena	
Eskualde mailan hizkuntzaren arloan dagoen egitasmo, ikerketa, datu, informazio, zerbitzu eta beste hainbat jakingarri bilduko dituen ataria elikatzea da helburua. Alde batetik, dagoen informazioa eguneratzea, eta, bestetik, garapen berriak zehaztu eta garatzea. Erronka nagusia webgunearen erabiltzaile kopurua handitzea izango da, eta, batez ere euskaldunak aktibatzea. Era berean, sare sozialen erabilera sustatzea, horretarako hainbat bitarteko erabiliz: albisteak, kultur agenda, lehiaketak	
Lanen kronograma (komunikazioa ekintzak barne)	
2016	
Urtean zehar	Kontratuan jasotako garapenak gauzatzea eta erabiltzaileengana iristeko komunikazio ekintzak aztertu eta garatzea (sare sozialak, harpidetzak, agenda kulturala, lehiaketak,...)
urrian	Erabiltzaileen estatistikak jaso eta aztertzea
abenduan	Hurrengo urterako mantenu eta garapen berrien kontratua sinatzea IAmetzarekin.
Komunikazio ekintzak: ☒ ez ☐ bai	
Prensaurrekoa: ☐ Erreportajea: ☐ Web orria: ☐ Sareko jolasik?: ☐ Besterik: ☐	
Euskalduntze-alfabetatze ekintzarik aurreikusten al da? ☒ez ☐bai, zein?	
Aurrekontua: 12.243,65 € • Mantentzea 7.822,65€ • Responsive aplikatzea: 4.221 € • Egin daitezkeen lehiaketak 200 €	
Egitasmoan parte hartzen duten udalak: Buruntzaldeko guztiak	
Oharrak	



18.- MOTXIAN EBY

Ezaugarri nagusiak	
Izena:	Motxian eby
Helburu estrategikoa:	Euskararen erabilera: euskararen aldeko auzogintza / zerbitzugintza
Esparrua:	Informazioaren eta komunikazioaren teknologia berriak
Helburu zehatza:	12-16 urteko gaztetxoek IKTetan euskara erabiltzea eta horietan euskaraz sortutako edukiak ere ikustea.
Arduraduna:	Astigarraga
Azalpena	
Aurten ere lehiaketa Oarsoaldeko Udalekin batera antolatzeke asmoa dugu. Ikastetxetik kanpo atera bai, baina adin horretan partehartzea nolabait sustatu behar denez, Kuadrillategi eta Gaztelekuak iruditzen zaizkigu bitarteko egokiak. Gaztelekuen arteko fororik ez dagoenez, 2015ean gai honen inguruan deitu eta lehiaketa beraiekin batera landu nahi genuke. Partehartzea bera baino garrantzitsuagoa iruditzen zaigu zabalkundea, alegia, bideoek duten ikustaldi kopurua eta horregatik internet bidezko bozkatze sistemarekin jarraituko dugu.	
Lanen kronograma (komunikazioa ekintzak barne)	
2016 Maiatza/Ekaina Urria Abendua	Lehiaketaren ezaugarriak eta oinarriak adostu Lehiaketa abiarazi Lehiaketaren sari banaketa.
Komunikazio ekintzak: ☐ ez ☒ bai Prentsaurrekoa: ☐ Erreportajea: ☐ Web orria: ☒ Sareko jolasik?: ☐ Besterik: ☒ Sare sozialak, kartelak, esku orriak, prents-oharra.	
Euskalduntze-alfabetatze ekintzarik aurreikusten al da? ☒ ez ☐ bai, zein?	
Aurrekontua: 3.300	
Egitasmoan parte hartzen duten udalak: Andoain, Astigarraga, Hernani, Lasarte-Oria, Urnieta eta Usurbil.	
Oharrak	



19. EUSKARA MERKATARITZARA: AUTOESKOLAK

Ezaugarri nagusiak	
Izena:	Euskara Merkataritzara. Autoeskolak
Helburu estrategikoa:	Euskararen erabilera: euskararen aldeko auzogintza- zerbitzugintza.
Esparrua:	Enpresa
Helburu zehatza:	Euskararen erabilera normalizatzeko gazteek B gidabaimena euskaraz atera dezaten sustatzea, eta autoeskolen kasuan, zerbitzu osoa euskaraz eman dezaten zerbitzua egokitzea, bai pertsonalaren euskarazko gaitasunari zein ikasleekiko erabiltzen duten dokumentazioari dagokionean.
Arduraduna:	Lasarte-Oria.
Azalpena	
Egitasmoak hainbat elementu izango ditu: - Esku-orriak - Zozketa, azterketa teorikoaren kostua, 400€-ko mugarekin. Herri bakoitzeko autoeskola beste sari. Herritarrengan eragitea Buruntzaldeko webaren bidez eta erreportajea Buruntzaldeko herri komunikabideetan argitaratuz.	
Lanen kronograma (komunikazioa ekintzak barne)	
2016	
Urtarrila:	2015eko zozketa, eta prentsaurrekoa irabazleen berri emateko, eta autoeskoletako ordezkariekin biltzeko
Martxoan:	Kanpaina berrirako materiala zuzendu eta eskatzea
Apirila:	Kanpaina berria aurkezteko prentsaurreko egitea
Apirila:	Buruntzaldeko autoeskoletako ordezkariet bertan banatzea Kanpaina berriko materiala
Maiatza:	Erreportajea argitaratzea
Ekaina:	2016ko balorazioa eta memoria egitea
Azaroa:	Autoeskoletako errolda eguneratzea
Abendua:	2017rako egitasmoa definitzea
Abendua:	2017rako programa Udaletan onestea
Abendua:	Hurrengo urterako materiala eskatzeko kopuruak definitzea
Komunikazio ekintzak: ☐ ez ☐ bai Prentsaurrekoa: ☒ Erreportajea: ☒ Web orria: Sareko jolasik?: ☐ Besterik: ☐	
Euskalduntze-alfabetatze ekintzarik aurreikusten al da? ☐ ez ☒ bai, zein? Materiala euskaltegietan banatzea.	
Aurrekontua: 8.661,81 €	
Egitasmoan parte hartzen duten udalak: Andoain, Astigarraga, Hernani, Lasarte-Oria, Urnieta, Usurbil	
Oharra	



20. LAN MUNDUAN ERAGITEA

Ezaugarri nagusiak	
Izena:	Lan munduan eragitea
Helburu estrategikoa:	Euskararen erabilera: euskararen aldeko auzogintza- zerbitzugintza.
Esparrua:	Enpresa
Helburu zehatza:	Euskararen erabilera normalizatzea Buruntzaldeko lan munduan.
Arduraduna:	Lasarte-Oria
Azalpena	
Buruntzaldeko lan munduan eragiteko eta enpresetan euskararen erabilera normalizatzeko planak sustatzea eta prestigiatzea Baietz Gurean! egitasmoa erabiliz. Horretarako, bidea egiten digun enpresa aholkulari bat kontratatzea aurreikusten da.	
Lanen kronograma (komunikazioa ekintzak barne)	
2016	Urtarrila: Enpresa aholkularia kontratatzea urte natural osorako. Urtean zehar lantzeko aurreikusten diren gaiak: - Heziketa zikloetako egitasmo garatzen jarraitzea - Baietz gurean egitasmoa sustatzen jarraitzea, bisitak, diagnosiak, eta abar. - Abian dauden planen jarraipena egitea - Buruntzaldeko udalen hornitzaileak identifikatu, bisitatu eta udalarekiko hizkuntza kudeaketa egokia egin dezaten planteatzea Herri bakoitzak bere herriko enpresekin hitzarmena sinatuko du dagokionean Otsaila: Erreportajea Abendua: 2016ko memoria eta 2017rako plana aurkeztea
Komunikazio ekintzak: ☐ ez ☒ bai	
Prentsaurrekoa: ☒ Erreportajea: ☒ Web orria: ☒ Sareko jolasik?: ☐ Besterik: ☒	
Euskalduntze-alfabetatze ekintzarik aurreikusten al da? ☐ ez ☐ bai, zein?	
Aurrekontua: Aholkularia 21.659,00 € Erreportajea 4.000,00 € GUZTIRA: 25.659,00 €	
Egitasmoan parte hartzen duten udalak: Andoain, Astigarraga, Hernani, Lasarte-Oria, Urnieta, Usurbil	
Oharrak	



21.- EUSKARAZKO PRODUKTUEN KATALOGOA

Ezaugarri nagusiak	
Izena:	Euskarazko produktuen katalogoa.
Helburu estrategikoa:	Euskararen elikadura.
Esparrua:	Kulturgintza.
Helburu zehatza:	Euskarazko produktuen kontsumoa sustatzea horien berri emanez.
Arduraduna:	Usurbil/Hernani
Azalpena	
Katalogo gisako argitalpen baten bidez, 12 urte bitarteko haur eta gaztetxoentzat merkatuan dauden hainbat produkturen berri emango dugu: informatika, bideoak, jolasak, diskoak, liburuak, aldizkariak...Katalogoa Eguberrien aurretik etxeetara banatzen da, eta web orria urte osoan zehar eguneratzen da. Argitaletxeei dagokie eguneraketa. DBHko gazteentzako orri bereizgarria ere eskaintzen da, katalogorako sarbidea errazten duen QR markarekin.	
Lanen kronograma	
2016	
Otsaila	15/16ko katalogoaren balorazioa egitea lantaldean, eta hurrengo ikasturterako katalogoaren ezaugarriak zehaztea
Apirila	Eskaerak jasotzea eta aurrekontuak zehaztea
Iraila	16/17ko katalogoaren prestaketako lantaldearen bilera: lanen jarraipena egitea eta produktuen artean behin betiko aukera egitea.
Azaroa	16/17ko katalogoa banatzea eta komunikazio-ekintzak egitea.
Urtean zehar	6 buletin bidaltzea harpidedunei eta web orria eguneratzen joatea.
Komunikazio ekintzak: BAI Web orria eta besterik (Prestatuta datozen euskarriak erabiltzea: bideoa, prentsa-oharra, bannerra...)	
Euskalduntze-alfabetatze ekintzarik aurreikusten al da? EZ	
Aurrekontua: 7.500 €	
Egitasmoan parte hartzen duten udalak: Andoain, Astigarraga, Hernani, Lasarte-Oria, Urnieta, Usurbil	
OHARRAK	



22.- GU ERE BERTSOTAN EGITASMOA

Ezaugarri nagusiak	
Izena:	Gu ere bertsotan
Helburu estrategikoa:	Euskararen elikadura
Esparrua:	Kulturgintza
Helburu zehatza:	Gazteen artean ahozketasuna lantzea bertsolaritzaren bidez
Arduraduna:	Urnieta
Azalpena	
Gipuzkoako Bertsozale Elkartarekin elkarlanean egindako programa da, orain dela hamabi urte abian jarritakoa Buruntzaldeko Lehen Hezkuntzako ikastetxe guztietan.	
Lanen kronograma (komunikazioa ekintzak barne)	
2016	
Otsaila	- Egitasmoaren lehen balorazioa egin
Apirila	- Egitasmoaren 2. balorazioa egin eta hurrengo ikasturterako egitasmoa
Maiatza	prestatu.
Ekaina	- 2015/2016 ikasturterako ikastetxeen eskaerak zehazteari ekin.
	- Programan parte hartu duten ikasleen jendaurreko saioak burutu.
	- 2015/2016 ikasturterako egitasmoa aurkeztu udaletan.
Iraila-urria	- 2015/2016 ikasturterako egitasmoa onartu udaletan.
	- Egitasmoa martxan jarri ikastetxeetan
Komunikazio ekintzak: ☒ ez ☐ bai	
Prentsaurrekoa: ☐ Erreportajea: ☐ Web orria: ☐ Sareko jolasik?: ☐ Besterik: ☐	
Euskalduntze-alfabetatze ekintzarik aurreikusten al da? ☒ ez ☐ bai, zein?	
Aurrekontua: 60.000,00 €	
Egitasmoan parte hartzen duten udalak: Andoain, Astigarraga, Hernani, Lasarte-Oria, Urnieta, Usurbil	
Oharrak	



23.APELLIDUAK ABIZENDU

Ezaugarri nagusiak	
Izena:	Apellidua abizendu
Helburu estrategikoa:	Euskararen elikadura
Esparrua:	Corpus plangintza eta euskararen kalitatea
Helburu zehatza:	Abizenak euskaraz jartzeko urratsak eskuorri batean biltzea aztertzea
Arduraduna:	Usurbil
Azalpena	
Orain arte 18 urte betetzen dituzten gazteei abizenak euskal grafiaz jartzeko jarraibideak jasotzen dituen eskuorria bidali izan diegu. Ikasturte honetan, gaia berraztertu egingo dugu eta gai honekin norengana iritsi nahi dugun zehaztuko dugu: guraso berriengana, gazteengana... Azterketa horren ondorioz, eskuorri berri bat sor daiteke (egokia ikusten bada) abizenak euskalduntzeko urratsak azalduko dituen. Guragoei zuzendutako eskuorria sortuko balitz, familia transmissioa gaiarekin ere zerikusia izan dezake gai honek. Litekeena da eskuorriak ez argiratzea eta egitasmoari beste forma bat ematea. Bestalde, zenbat lagunek 2015ean zenbat lagunek aldatzen duten izena eta abizenaren grafia ere jasoko da.	
Lanen kronograma (komunikazioa ekintzak barne)	
2016	
Otsaila	2015ean abizena euskaraz jaso dutenen kopurua jaso
Apirila	Eskuorri berriaren planteamendua aztertu
Komunikazio ekintzak: ez bai	
Prentsaurrekoa:	Erreportajea: Web orria: Sareko jolasik?: Besterik:
Euskalduntze-alfabetatze ekintzarik aurreikusten al da?	
☐ ez ☐ bai, zein?	
Aurrekontua: 2000 €	
Egitasmoan parte hartzen duten udalak: Denak	
Oharrak	



24. KOORDINAZIOA

Ezaugarri nagusiak	
Izena:	Koordinazioa
Helburu estrategikoa:	Besterik
Esparrua:	Buruntzaldeko Udalok hitzartutako egitasmoak koordinatzea eta
Helburu zehatza:	komunikatzea
Arduraduna:	Lasarte-Oria
Azalpena	
Hitzartutako planeko egitasmoen ardurak banatuta ditugunez, koordinazioaren ardura duenak eginkizun horien kohesioaz eta koordinazioaz arduratu behar du, plana biltzen duen txostena osatu, egitasmo bakoitzaren komunikazio orokorra bideratu eta bukaeran guztiaren memoria osatu beharko du. Komunikazioaren atalean barneko zein kanpoko komunikazioaz arduratuko da, hau da, politikoen bilera deialdiez gain, egitasmoak gizarteratu eta bereziki dagozkion hartzaleei iristeko prentsa edo jendaurrean egingo diren agerraldietan Udal guztien ordezkio gisa azalduko da eta horien antolaketaz arduratuko da.	
Lanen kronograma (komunikazioa ekintzak barne)	
2016	
Martxoa	- Udalak euskaraz defektuz (eta euskara hutsez) egitearen zentzu soziolinguistikoa partekatzeko saio bat egitea eta hori Udal bakoitzean hedatzeko egin denaz eta egin litekeenaz hausnartzea.
Urria	- 2016ko memoria eta 2017rako aurreikusitako egitasmoa eta horren komunikazio plana osatu.
Azaroa	- Politikariak bilerara deitu 2016an egindakoaren memoria eta 2016rako aurreikusitako plana aurkeztu eta horren aurrekontuaren berri emateko.
Abendua	- Udal guztien onarpenak jaso eta 2017ko kronograma osatu.
Komunikazio ekintzak: Komunikazio planean, aparteko txosten batean, daude jasota.	
Euskalduntze-alfabetatze ekintzarik aurreikusten al da? EZ	
Aurrekontua: 0,00 €	
Egitasmoan parte hartzen duten udalak: Andoain, Astigarraga, Hernani, Lasarte-Oria, Urnieta, Usurbil	
Oharrak	